

Edizio jarraitua

Pello Lizarraldek apirilaren 15ean aurkeztuko du 'Lanbroa', bere nobela berria

Egilea 111 Akademia - 2024/04/10

0



2020ko 111 Akademiaren Saria Pello Lizarraldek irabazi duen 'Argiantza' eleberriarekin.

Erein argitaletxeak apirilaren 15erako iragarri du Pello Lizarralderen nobela berriaren aurkezpena: **Lanbroa** titulupean eman du argitara Lizarraldek bere lan berria, eta Inazio Mujika editorea lagun duela aurkeztuko du hilaren 15ean Donostiako Udal Liburutegian.

Pello Lizarraldek orain 4 urte argitaratu zuen bere aurreko lana, **Argiantza**, eta 111 Akademiaren Saria, Kritika Saria eta Euskadi Literatura Saria jaso

zituen lan hari esker.

Lanbroa

Larunbat arratsaldea merkataritza-gune batean. Gizon bat dabil han familia ondoan duela. Emakume bat ere bai, bakarrik eta zerbait erosteko asmoz. Begiradarik gurutzatu ez arren, gizonak eta emakumeak elkar ikusi dute.

Horrek eragin dien asaldura izugarriak handik lehenbailehen irteteko eta etxera erretiratzeko behar larria ekarri die. Bakoitza bere aldetik, hoguei urte lehenago gertatu zena biziberritzen ahaleginduko da. Egun hartan ordu batzuk eman zituzten elkarren ondoan, eta ez biek ahal nahi izan zutelako. Lanbroak hartutako lurralde baten barrena ibili ziren ihesi, helburu zuten muga lausoa noiz iritsiko.

Bataren ahotsak ekartzen dizkigun oroitzapenak ez datoz bat bestearenekin. Oroitu nahi ez izatea ez da nahikoa. Gogoratzten denari lotuta beti egoten da ahazten denak uzten duen hutsunea, eta bi protagonistei, aurrera egingo bazuten, orduko hura burutik kentzea komeni zitzaien. Hala ere, iraganak gordetakoak ez da gure nahira etortzen, eta betiko lo zegoela uste genuena noiznahi agertu daiteke. Ezin jakin noiz, ezin jakin nola.

ETIKETAK Pello Lizarralde Azala Lanbroa

Subscribe

Login



Be the First to Comment!

B I U S [+]

0 IRUZKIN



IDAZLEEN ZERRENDA

Aukeratu

LIBURUA BILATU

Liburuak (1.841)

Bilatu

EGUTEGIA

« APIRILA 2024 »						
A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	1	2	3	4	5

AR. Leioa: irakurle-taldea
23 23 apirila @ 6:30 pm - 8:00 pm

IRITZI BERRIAK

Irun 67.1 on **Sortze berri bat**

Getxo 50.1 on **Maitasun kapitala**

Mutiloa-Aranguren 34.1 on **Bichta eder**

Bilbo 54.3 on **Ametsen trafikatzalea**

Gasteiz 9.5 on **Bekatua**

antolatzailea



MANUELLARRAMENDI

udal erakunde laguntzailea



ANDOAINGO UDALA

erakunde laguntzaileak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIALA

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako
Salburuordetzak diruz lagundutako argitalpena

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



GURI BURUZ

111AKADEMIA:

Euskal Herriko literaturazaleen bigunea da 111 Akademia. Ia 200 irakurlek parte hartzen dute egitasmoan: liburuak irakurri, iruzkinak bidali eta urtero 111 Akademiaren Saria ematen dute. Zu ere akademiakide izan zaitezke.

Jarri gurekin harremanetan: akademia@111akademia.eus

JARRAI GAITZAZU

